| | LAN BATZORDE IREKIAK | | |
|---|---|---|---|
| *TALDEA* | **ONGIZATE BATZORDEA** | | |
| ***IRAUPENA*** | **ORDU 1** | ***EGUNA*** | **2019-02-19** |
| ***GAIA*** | **-** | ***DEIALDIA*** | **19:00** |

| ***PARTE HARTZAILEAK*** | | | |
|---|---|---|---|
| Iñaki Etxezarreta | Endika Igarzabal | Iñaki Sarriegi | |
| | | | |
| Ezin etorria adierazi dutenak: Eli Elgarresta, Arantxa Bidegain, Jabier Garcia | | | |

## ***ERABAKIAK***

| ***GAIA*** | ***EKINTZAK*** | ***ARDURADURA*** | ***NOIZKO*** |
|---|---|---|---|
| **HAURTZAINDEGIA** | ● Aurrez aipatu bezala, haurtzaindegia irekita dago. | | |
| **ZABORRAK** | ● Kontenedore marroia (organikoa) herriguneko zaborgunean jarrita dago.<br><br>● Iruditzen zaigu jendeak ez duela espero bezala erantzun, errefusa ez dugulako ikusten jaitsi denik, eta jendeak ez duelako hartu errefusa jaisteko neurri bat bezala.<br><br>● Horregatik, errefusaren ontzia astean behin bakarrik irekitzen dela jarriko da (astelehenetan). Neurri hau martxan jarri erabakiko da.<br><br>● Kontenedore marroiaren txartela inork nahiko balu, udaletxera deitu eta bertatik helaraziko zaie.<br><br>● Itsasok bi aukera jarri behar ditu martxan: autokonposta eta konposta komunitarioa. Baita edukiontzi marroia ere. Errefusa astean behin irekitzen dela jarriko dute.<br><br>● Ezkiok edukiontzi marroia jartzea erabaki du. Errefusan ez du inolako aldaketarik egingo. | | |
| **ADINEKOENTZAT TOPAGUNEA** | ● Herrian martxan jarri da dagoeneko topagune hau, otsailaren 7an izan zen lehen eguna, eta 15 bat lagun elkartzen dira.<br><br>● Denetariko ariketa, joku eta ekintzak egingo dituzte bertan. Taxi zerbitzua ere jarri da hala behar dutenentzat. | | |
| **GOI TENTSIOKO LINEA** | ● Dicastillo-Itsaso linea berriro ere martxan jartzen ari dira. Lizarran bilera bat izan da joan den asteburuan eta bertan jakinarazi digute.<br><br>● Oraingoan beharra justifikatzeko jartzen duten aitzakia, Nafarroan sortzen den energia berriztagarria Gipuzkoara ekartzeko beharrezkoa dela da.<br><br>● Proiektu hau bi aldiz geratzea lortu da, beraz, berriro ere gogor lan egin beharko da horren aurka. Horretarako, inguruko herriekin batera herritarrak mugitzeko elkarlana bultzatuko da. | | |
| | ● | | |

**HURRENGO BILERA: apirilak 29, 19:00tan**